

# Ageriko kontuen kontratuaren ERANSKINA-Ordaintzeko zerbitzuen Legea

## 1. HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA.

1.1. Ordaintzeko Zerbitzuei buruzko 16/2009 Legeak, azaroaren 13koak, finkaturiko eskakizunak betetzeko xedez, aldeek honako hau hitzartu dute: (i) eranskin honen edukiak Lege horretan zehaztutako ordainketa-zerbitzuetarako erregimen juridiko aplikagarria ezarriko du; (ii) eranskin honetan esanbidez arautzen ez den guztiari dagokionez, bi aldeek men egingo diote eranskin hau zati bereiztezintzat duen kontratuan berariaz xedatutakoari; eta (iii) kontraesana egonez gero, eranskin honen xedapenak nagusitu egingo dira eragindako kontratu nagusien aurrean.

1.2 Kontratu nagusien eta eranskin honen xedeetarako, Europako Esparru Ekonomikoa osatzen duten lurraldeetan horietako edozein dibisa erabilia egindako ordainketa-eragiketak soilik hartuko dira aintzat.

## 2.- ORDAINKETA ERAGIKETAK JAULKI (IDENTIFIKATZAILE BAKARRA) ETA BAIMENDU AURRETIK INFORMAZIOA EMAN BEHARRA.

TITULARREK, ordainketa-aginduak zuzen betetzeko, "identifikatzaile bakarra" eman behar dute. Egin beharreko ordainketa-eragiketaren arabera, kontu korrontearen kodea ("KKK") edo "IBAN" kodea izango da identifikatzaile bakarra.

Ordainketa-agindu bat identifikatzaile bakarraren arabera betetzen denean, zuzen burutu dela ulertuko da, identifikatzaile bakarren zehaztutako onuradunari dagokionez. Beraz, TITULARREK emandako identifikatzaile bakarra okerra izanez gero, EUSKADIKO KUTXAK ez du bere gain hartuko ordainketa-eragiketa burutu ez izanaren edo gaizki burutu izanaren erantzukizuna. Hala ere, kasu horretan, EUSKADIKO KUTXAK bere esku dauden ahaleginak egingo ditu ordainketa-eragiketako fondoak berreskuratzeko

TITULARREK ordainketa-aginduak zuzen betetzeko, EUSKADIKO KUTXAK eskatutako informazioaz gain, informazio osagarria ematen badute ere, TITULARREK emandako identifikatzaile bakarrarekin bat datozen ordainketa-eragiketak egiteko erantzukizuna soilik hartuko du bere gain EUSKADIKO KUTXAK, eragiketa horiek zuzen betetzeari begira.

Ordainketa-eragiketak baimendutzat hartuko dira, TITULARREK eragiketa horiek EUSKADIKO KUTXAREKIN kontratu nagusian ordainketa-zerbitzu bakoitzarentzat hitzartutakoaren arabera betetzeko onespena ematen dutenean.

## 3.- ORDAINKETA AGINDUAK BETETZEA.

Ordainketa-agindu bat jasotzeko unea EUSKADIKO KUTXAK jasotzen dueneko izango da. EUSKADIKO KUTXARENTZAT egun balioduna ez bada edo EUSKADIKO KUTXAK agindu hori jasotzeko ezarritako ordutegiaz kanpo jasotzen badu (jendearentzako ordutegia izango da hori, kanal bakoitzarentzat berariaz ezarritakoa izan ezik), ordainketa-aginduak hurrengo egun baliodunean jaso direla ulertuko da, onuradunaren ordainketa-zerbitzuen hornitzailearen kontuan ordaintzeko gehienezko epea zehazteari begira. TITULARREK emandako ordainketa-aginduak hasiko dira betetzen ENTITATEAREN esku behar besteko fondoak jartzen dituzten egunean, edo, EUSKADIKO KUTXAK agindu hori zorpean betetzea erabakiz gero, agindua bete behar den egun berean. Kasu horretan, TITULARREK fondo horiek berehala jarri behar izango dituzte.

EUSKADIKO KUTXAK ordainketa-agindu bat betetzeari uko egin liezaioke, horretarako arrazoi justifikaturik balego. Kasu horretan, TITULARREI uko egiteko erabakia jakinarazi beharko dio, baita, ahal dela, erabaki horren arrazoiak eta erabakia eragin duten balizko akatsak zuzentzeko prozedura ere, arauen batek horiek jakinaraztea debekatzen duenean izan ezik. Jakinarazpena kontratu honetan korrespondentzia jasotzeko hitzartutako bidea erabiliz eta legez ezarritako gehienezko epearen barruan gauzatuko da.

## 4. - ORDAINKETA ERAGIKETAK BETETZEKO EPEA.

Ordainketa-kontuan eurotan egindako ordainketa-eragiketen kasuan, bi hornitzaileak Europako Batasunean daudenean, EUSKADIKO KUTXAK agindua betetzeko izango duen gehienezko epea hauxe izango da:

- a) TITULARREK hasitako eragiketetan: agindua jasotzeko dataren hurrengo egun baliodunean, paperez hasitako ordainketa-eragiketetan izan ezik, kasu horretan epea bi (2) egun balioduneko izango baita. Aurretik esandakoa gorabehera, aldi baterako, 2010eko urtarrilaren 1era arte hain zuzen, epe hori hiru (3) egun balioduneko izango da. Espainian egindako eta jasotako eragiketetan, berriz, epea bi (2) eguneko izango da. Bi epe horiek egun baliodun batean (1) luzatuko dira paperez hasitako ordainketa-eragiketetan.
- b) TITULARRAK onuradunak diren abonu-eragiketetan: agindu-emailearen ordainketa-zerbitzuen hornitzailearengandik ordainketa-eragiketaren zenbatekoari dagozkion fondoak jaso eta berehala.

Gainerako ordainketa-eragiketak lehenbailehen beteko dira, ordainketa-zerbitzuen hornitzaile gisa esku hartzen duten entitateen edo erabili beharreko dibisa-merkatuen arabera. Aurretik esandakoa gorabehera, Europako Komunitatearen barruko ordainketa-eragiketetan, agindua betetzeko epea ez da lau (4) egun balioduneko baino luzeagoa izango, agindua jasotzen den unetik zenbatzen hasita.

## 5.- TITULARREK ESKATUTA BAIMENDUTAKO ORDAINKETA ERAGIKETEN ERREGIMENA.

TITULARREK eta EUSKADIKO KUTXAK hitzartu dutenez, haiek helbideratutako zordunketak itzultzeko eskubidea izango dute Ordaintzeko Zerbitzuen Legeak eta gainerako arauak horretarako aurreikusitako baldintzak betetzen direnean soilik. Itzulketa-agindua justifikatzeko, TITULARREK ezingo dute dibisa-trukeari lotutako arrazoirik argudiatu, EUSKADIKO KUTXAREKIN hitzartutako eta entitateak argitaratutako erreferentziako truke-tasa aplikatu bada.

Orobat, TITULARREK eta EUSKADIKO KUTXAK adostu dutenez, haiek ez dute itzultzeko eskubiderik izango, baldin eta EUSKADIKO KUTXARI lehenago ordainketa-agindua betetzeko baimena zuzenean eman bazioten eta entitateak edo onuradunak ordainketa-eragiketari buruzko informazioa eman bazien, gutxienez, eragiketa betetzeko aurreikusitako data baino lau aste lehenago.

Itzulketa eskatuz gero EUSKADIKO KUTXAK hamar (10) egun balioduneko epea izango du, itzulketa-eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita, ordainketa-aginduaren zenbateko osoa itzultzeko, edo bestela, eskaerari uko egiteko arrazoia justifikatzeko. Kasu horretan, TITULARREK erabil dezaketen erreklamazio-prozedura judizialak eta judizioz kanpokoak adierazi beharko ditu entitateak.

## **6.- KONTSUMITZAILE EZ DIRENTZAKO ARAU APLIKAGARRIAK**

6.1 Eranskin honek araututakoaren xedeetarako, beren jarduera ekonomikoari, komertzialari edo profesionalari dagozkien helburuekin diharduten pertsona fisikoak eta juridikoak "kontsumitzaile ez diren" TITULARTZAT hartuko dira.

6.2 Ordaintzeko Zerbitzuen Legearen 29. artikulua agindutakoaren xedeetarako, baimendu gabeko edo gaizki betetako ordainketa-eragiketak aurkaratzeko gehienezko epea 30 egunekoak izango da, dagokion abonua edo zordunketaren egunean zenbatzen hasita. Epe hori igarota aurkaratzerik ez badago, kontsumitzaile ez diren TITULARREK ordainketa-eragiketa onartu egin dutela ulertuko da.

6.3 Eskudiruzko sarrera-eragiketetan, fondoak jasotzen diren egunaren biharamunean izango dituzte eskura kontsumitzaile ez diren TITULARREK. Kasu horretan, sarrera egiten den egunaren biharamunekoak izango da sarreraren balio-data.

6.4. Kontsumitzaile ez diren TITULARREK agindutako ordainketa-eragiketetan, Ordaintzeko Zerbitzuen Legearen atal hauek ez dira aplikatuko: III. Tituluaren xedapenak eta IV. Tituluko 24.1 artikulua, 25.1 artikulua lehen paragrafoko azken zehaztapena eta 30, 32, 33, 34, 37 eta 45. artikulua.

## **7.- ENTITATEAREN ESKUMENAK.**

7.1. EUSKADIKO KUTXAK lurralde jakin batekin edo entitate jakin batekin egin beharreko ordainketa-agindua jaulkitzeko edo jasotzeko eskumena izango du, nazioarteko neurri murriztaile edo zigortzaileek EUSKADIKO KUTXARENZAT izan lezaketean eragina dela eta.

7.2. TITULARREK esanbidezko ahalmena emango diote EUSKADIKO KUTXARI, kontratu nagusian eta eranskin honetan komunikazio eta jakinarazpenen inguruan ezarritako bideari jarraiki, EUSKADIKO KUTXAK TITULARREI bidali beharreko komunikazio indibidualizatu guztiak bidaltzeko, bai kontratu nagusian edo baliabide elektronikoa ezarritako helbidera, bai TITULARRETAKO batek EUSKADIKO KUTXARI adierazitako unean uneko posta elektronikoko helbidera, eta TITULAR guztiek komunikazio horiek jaso dituztela ulertuko da.

7.3. EUSKADIKO KUTXAK kontratua suntsiarazteko eta kontua ezeztatzeko eskubidea izango du. Horretarako, TITULARREI erabaki horren berri eman beharko die, kontratua ezeztatzeko eguna baino 2 hilabete lehenago, gutxienez.

7.4. EUSKADIKO KUTXAK ordainketa-zerbitzuak emateko hitzartutako baldintzak uneoro aldatzeko eskubidea izango du. Horretarako, erabaki horren berri eman behar du, aldaketak indarrean jartzeko data baino bi hilabete lehenago, ordainketa-zerbitzuari lotutako komunikazioetarako hitzartutako bidea erabiliz. Aldaketak indarrean jartzeko adieraziko dataren aurretik TITULARRAK aldaketak ez dituela onartzen jakinarazten ez badu, aldaketak onartu egin dituela ulertuko da. Ordainketa-zerbitzuen titularrarentzat mesedegarri diren aldaketak, ordea, berehala aplikatu ahalko dira, itxaroteko eperik gabe eta aldiz aurreko abisurik eman gabe.

## **8.- KOMISIOAK ETA GASTUAK.**

Produktu eta ordainketa-zerbitzu guztien komisioak eta gastuak EUSKADIKO KUTXAK horietako bakoitzarentzat tarifa-foiletoan aurreikusitakoak izango dira.

Ordainketa-zerbitzu eta -eragiketetan aplikagarri diren baldintzen inguruko informazioak ez du gasturik eragingo titularrarentzat edo agindu-emailearentzat. Hala ere, titularrak edo agindu-emaileak eskatutako edozein informazio osagarri, desberdinek edo hitzarmen honetan hitzartutakoa baino maiztasun handiagoz jakinarazten denak gastu bat eragingo du, eta hori EUSKADIKO KUTXAREN tarifen arabera likidatuko da. Horrez gain, entitateak honako gastu hauek egotzi ahal izango dizkie TITULARREI: kontratuaren suntsiarazpenak eragindako gastuak, ordainketa-aginduen ezeztapenak eragindako gastuak eta identifikatzaile bakar okerrarekin egindako eragiketak direla-eta fondoak berreskuratzeko gastuak.

Ordainketa-eragiketen eta -zerbitzuen eremuan beren-beregi sartzen ez diren gainerako gastu eta komisio guztiak dagokien lotutako kontratuaren arabera eta EUSKADIKO KUTXAREN tarifa-foiletoaren arabera aplikatuko dira.